# Laneki buletin@

LNKi 2025/ 3. buletin@ MARTXOA

jakinbai.eus
hezìraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
*Ekinbira* sitea
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

## LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

### Material berriak

**Komunikazio-sistema handigarri eta alternatiboak (KSHA)**

Liburu honek komunikazio-sistema handigarri eta alternatiboekin (KSHA) lotutako edukiak aurkezten ditu. Eduki horiek zerbitzu soziokulturalen eta komunitatearen lanbide-arloko hainbat heziketa-ziklotako moduluetan lantzen dira: – Komunikaziorako Laguntza modulua, Mendetasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko erdi-mailako prestakuntza-zikloari dagokiona. – Komunikazioko Sistema Handigarri eta Alternatiboak modulua, Gizarteratzeko goi-mailako prestakuntza-arlokoa. – Komunikazio Sistema Handigarri eta Alternatiboak modulua, Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako prestakuntza-zikloari dagokiona.

Jakinbai Laneki — 2025/04/01

**Zaharberritzeak eta Estaldura Estetikoak**

Etorkizuneko hortz-protesientzako lehengoratze-tratamenduei eta estaldura -estetikoei buruzko testu-liburu bat planifikatzerakoan , gaur egun hortz- protesi laborategietan egiten diren tratamendu gehienak biltzen saiatu naiz, guztiak urtez urte bisitatzeko zortea dudan hortz-protesista askoren -esperientziak lagunduta , Lantokietako Prestakuntza (FCT) modulua koordinatuz.

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**Berrezarpenak eta metalezko egiturak protesi Finkoan**

Liburuak Berrezarpenak moduluaren edukiak garatzen ditu, eta protesi finkoko egitura metalikoak, azaroaren 18ko 1 687/2011 Errege Dekretuan oinarrituta (Hortz-protesietako Goi Mailako Teknikaren titulua ezarri eta haren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena), Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa betez.

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**Hortz-protesien laborategia**

Laborategiko lanbide-modulua UC2087_3 gaitasun akreditagarriari buruzko unitateari dagokio: Zentro bat , instalazio bat edo hortz- protesi laborategi bat kudeatzea, eta -dento - protesi , ortodontzia-aparatu eta oklusula-tresnen diseinu , prestaketa, elaborazio , fabrikazio eta konponketa prozesuak antolatzea.

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**Ortodontzia-aparatuak eta Ferula oklusalak**

Hortz Protesiaren goi - mailako heziketa zikloko Ortodontzia-Aparatuak eta Ferula Oklusalak lanbide-modulurako gida eraginkorra izateko asmoarekin sortu da . Hortz Protesiaren goi-mailako teknikariak bere eguneroko praktikarako baliabide ugari aurkitu ahal izango ditu bertan.

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**Mikrobiologia eta elikadura-higienea**

Mikrobiologia klinikoa

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**Sarrera-piezak erronka**



Lan honetan, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa goi mailako zikloko lehen ikasturtean lantzen diren 4 erronketatik lehena garatu da: 1. Erronka: SARRERA- PIEZAK. Ikasleek bost pieza egingo dituzte eta, horretarako, tailerreko bi makina erabiliko dituzte: tornua eta fresatzeko makina. Erronkak lehen ikasturteko modulu guztiak batzen baditu ere, lan honetarako Mekanizazio-,konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa eta Adierazpen grafikoa moduluen atalak soilik landu dira. Ondorengo orriotan, erronka zuzentzeko erabiltzen diren errubrikak, erronkaren aurkezpen-txostena, ikasturte osoan zehar erabiltzen den Mekanizazio-Prozesu Orokorren txostena, neurtze- eta piezakatze-planoak eta piezen prozesu-orri eginak topatuko ditu irakurleak, besteak beste.

Jakinbai Laneki — 2025/03/27

**ETHAZI Metodologia Metal Eraikuntzan**



ETHAZI metodologia Metal Eraikuntzetan: Hasierako erronka batetik, erronka konplexu batetara. ETHAZI-ko Hamaika Pausoen aplikazio praktiko eta teorikoa irakasle eta ikasleentzat.

Jakinbai Laneki — 2025/01/30

jakinbai.eus
heziraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
*Ekinbira* sitea
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

# 2025EKO LANBIDE HEZIKETAKO MATERIAL BERRIAK

## Itzuliko diren materialen zerrenda

| | | |
|---|---|---|
| **Protocolo empresarial** | Paraninfo | Administrazioa eta kudeaketa |
| **Organización de eventos empresariales** | Paraninfo | Administrazioa eta kudeaketa |
| **Digitalización aplicada a los sectores productivos II** | Sintesis argitaletxea | Digitalizazioa |
| **Instalaciones de distribución** | Editex | Elektrizitatea eta elektronika |
| **Integración de sistemas de automatización industrial** | Paraninfo | Elektrizitatea eta elektronika |
| **Instalaciones de radiocomunicaciones** | Paraninfo | Elektrizitatea eta elektronika |
| **Reglamento electrotécnico para baja tensión** | PLCMadrid | Elektrizitatea eta elektronika |
| **Elaboraciones de Pasteleria y repostería en cocina** | Leioako Ostalaritza Eskola | Elikagaigintza |
| **Diseño de útiles de procesado de chapa y estampación** | Marcombo | Fabrikazio mekanikoa |
| **Mecánica del vehículo** | Editex | Garraio eta ibilgailuen mantentze lanak |
| **El Arte De Poner Limites** | ING Editions | Gizarte eta kultura zerbitzuak |
| **Las bases del frio** | DidaFrio Édition | Instalatze eta mantentze lanak |
| **Instalaciones eléctricas y automatismos** | Paraninfo | Instalatze eta mantentze lanak |
| **Sostenibilidad aplicada al sistema productivo** | McGrawHill | Jasangarritasuna |
| **Dispensación de productos parafarmacéuticos** | McGrawHill | Osasungintza |
| **Microbiología e higiene alimentaria** | McGrawHill | Osasungintza |
| **Control alimentario** | McGrawHill | Osasungintza |
| **Atención y apoyo psicosocial** | Altamar | Osasungintza |
| **Atención a las Unidades de convivencia** | Altamar | Osasungintza |
| **Mecanizado de madera y derivados MF162_1** | IC Editorial | Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa |

## Sortuko diren bideotutorialak

| | | |
|---|---|---|
| **Ekinbira 24 bideo** | Ekinbira | Enplegagarritasunerako ibilbide pertsonala |
| **Automatismo hidraulikoak 7 bideo** | Automatismo hidraulikoak | Ziklo indrustrialak |

# Laneki buletin@



jakinbai.eus
hezirauI.eus
lhdualaeuskaraz.eus
*Ekinbira* sitea
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

## EUSKARALDIAN EMAN IZENA

Aukeratu rola eta eman izena 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo den Euskaraldian parte hartzeko




Ikusi bideoa:




Elkar mugituz egingo dugu

jakinbai.eus
hezirauL.eus
lhdualaeuskaraz.eus
*Ekinbira* sitea
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

# ARABAKO ENPRESEN FOROA




## Arabako Enpresen Foroa

Lanabes, Araban euskara lanean, programaren baitan, **hizkuntzen kudeaketan interesa duten Arabako enpresen artean** praktiken komunitatea aktibatzea bilatzen da.

Aurten, bi foro deialdi egingo dira, lehena apirilaren 3an eta hurrengoa irailaren 23an.

### Egitaraua

| | |
|---|---|
| **9:15-9:30** | **Harrera eta gosaria**<br>Instituzio antolatzaileen eskutik. |
| **9:30-9:45** | **LanHitz eta Gasteizko Merkataritzako diru laguntzak**<br>Dirulaguntzen inguruko azalpena - Gasteizko Udala eta Hizkuntza Politika Saila. |
| **9:45-10:00** | **Euskaraldia**<br>Euskaraldia ekintza sozialean parte hartzeko argibideak - Taupa mugimendua. |
| **10:00-10:50** | **Praktikak euskaraz, errealitatea eta erronkak**<br>Enpresa eta hezkuntza zentroen esperientziak. |
| **10:50-11:00** | **Euskarazko praktiken mapa osatzera goaz.** |
| **11:00-11:30** | **Eta nire enpresan zer?**<br>Talde lana - Eman daitezkeen erronkak eta aurrerapausoak aztertu. |